

2024ko APIRILA

BERMEON ZER?



Apirilak 13

**TEAri buruzko Bermeoko
II. Jardunaldia**


Apirilak 20

Bermeoko Kantu Eguna

Apirilak 25

**EUKALYPTUS
antzezlan**

**BERMEOKO
UDALA**




Apirilaren 2tik 5era

LASAITZE GUNEAN, ATE IREKIAK

SASKI- BALOIKO KANPUSA

Apirilak 2, 3, 4 eta 5



URETAN GOZATUZ!

APIRILAK 2 ETA 4



02 Martitzenetik
03 barikura
04 Areneko
05 kiroldegian
10:00-15:00

HILEKO KIROL EKIMENA

ATE IREKIAK
LASAITZE
GUNEAN



02 Martitzenetik
03 barikura
04 Areneko
05 kiroldegiko
kantxa estalian
11:30-13:00

KIROLAK

SASKIBALOIKO
KANPUSA

(11-14 urte bitartekoentzat)



02 Martitzena
04 Eguena
Areneko
kiroldegian

JOLASALDIA

URETAN GOZATUZ!

URETAN JOLASEAN

Musika, jolasak, ginkanak

11:45-12:45 (3-4 urtekoak), 16:15-17:15 (5-6 urtekoak)

TXIKI-OLINPIADAK

Waterpolo, Akua-zunba, akua-saski

13:00-14:00 (7 urtetik gora. Ezinbestekoa da igeri egiten jakitea)

Izena emoteko: Areneko kiroldegian



03 Eguaztena
04 Eguena
Lameran, Artza
frontoian eta
portuan

HERRI KIROLAK

Bermeoko Herri Kirol
Txapelketa Herrikoia

Apirilaren 3an entremanduak eta apirilaren 4an txapelketa,

bi kategoriatan: 15-18 urte bitartean eta 19 urtetik gora.

Diziplina desberdinak: trontza, harrijasotze, txinga erute,
ingude jasotze eta arrauna.

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala eta Sustabiz Fundazioa**



06 Zapatua
Areneko
kiroldegian

KIROLAK ESKUBALOA

Kadete mutilak : Urdaibai Txatxarramendi- Ereintza Aguaplast
(Partiden ordutegiak astero begiratu Bermeoko
Udalaren webgunean eta herriko paneletan).

07 Domekea
Arrantzaleen
Museoan
11:30-13:00

UMEENTZAKO TAILERRA "ZERAMIKA"

5 eta 12 urte bitarteko umeentzako tailer honetan bakoitzak bere pieza egingo du gure Ertzilla Dorrea eredutzat hartuta.

Doan. Aurretiaz egin behar da erreserba.

Tel.: 946881171 / e-posta: arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Webgunea: www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**

09 Martitzenetik
10 barikura
11 Nestor
12 Basterretxea
aretoan
Goizez

FILM EMONALDIAK "Bizkarsoro" filma ikasleentzat

Filma ikusi eta ostean, solasaldia.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Laguntzaileak: **Korrika Kulturala eta UEMA**



10 Eguaztena
Gizarte eta
Kultura Etxeko
sukaldean.
18:00-20:00

TAILERRA SALDA SENDABELARREZ

Sendabelarrez egindako salda egiten ikasiko dogu Gaizka Sanchezekin.

Izena emoteko azken eguna: apirilaren 8a.

Plaza kopuru mugatua. Doan.

Info +: Tel.: 607 609 580

bermeoberba@gmail.com

<http://berbalagun-bermeo.blogspot.com>

Antolatzailea: **Berbalagun**



12

Barikua
Erroxape
Emakumeen
Elkartearen
lokalean
 19:00etan

EKITALDIA

BINGOA

Antolatzailea: Erroxape Emakumeen Elkartea

Gizarte eta
kultura etxeko
hitzaldi aretoan
 19:00etan

HITZALDIA

“Anjel Lekuona eta Enric Moner”

Hitzaldian Anjel Lekuona busturiarraren historia azalduko da, eta beste preso batzuekin dauan loturea. Pragako erraustegi zibileko errautsen zerrenda batean, Estatu Espainoleko sei presoen izenak aurkitu ebezan: Anjel Lekuona, Enric Moner, Antonio Medina, Pedro Raga, Rafael Moyá eta Vicente Vila.

Unai Egia Enric Moner-en bizitza ikertzen aritu zan eta Anton Gandarias, Anjel Lekuona bere osaba zanarena. Hitzaldian biak alkarregaz historia honen barri emongo dabe. Nazien kontzentrazio esparru batean eraila izan zen.

Hizlariak: Anton Gandarias Lekuona, Anjel Lekuonaren loba, eta Unai Egia Bizkarlegorra.

Antolatzailea: Bermeoko Udala

**13**

Zapatua
Areneko
kiroldegian

KIROLAK

ESKUBALOIA

Kadete neskak: Urdaibai Manteiga– Bluespace Basauri
 Jubenil neskak: Urdabai ET – Berango Urduliz Eskubaloia
 Urdabai ET Senior-C.B Muskiz
 Infantil neskak: Urdabai Demiku– Etxebarriko BZG C

FUTBITOIA

Bermeo Biara B- Kukullaga Etxebarri C



Nestor
Basterretxea
Aretoan
 12:00-14:00

JARDUNALDIA

Apirilaren 2a Autismoaz Kontzientziazteko Munduko Eguna danez

TEAri buruzko

Bermeoko II. jardunaldia

Antolatzailea: AmaTea



18 Eguena
Gizarte eta
Kultura Etxean
17:30ean

HITZALDIA

“LAN BALDINTZAK EZAGUTU”

Zelan ulertu zure... lan hitzarmena?
Nomina? Kontratua? Atxikipenak?
Geuk lagunduko zaitugu.
Izena emoteko: 688 819 950

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



Liburutegiko
beheko
solairuan
18:30-20:00

IRAKURLEEN TXOKOA

“Ni ez naiz Mikel Laboa”

Gidoia: Harkaitz Cano eta Unai Iturriaga
Marraskia: Joseba Larretxe

Sinopsia: Mikel Laboa kantari aitzindariaren ezohiko biografia da “Ni ez naiz Mikel Laboa”. Eleberri grafiko formatuan, Laboa ezagun egin zuten berezitasunak azpimarratzen saiatu dira Harkaitz Cano eta Unai Iturriaga, Joseba Larratxeren irudiak lagun. Kantari donostiarrak tradizioarekiko erakutsi zuen kemena, transgresorako indarra eta bere ahots berezi bezain desberdina, besteak beste.

Info+: www.bermeo-euskaraz.eus

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



19 Barikua
Lamerako
autobus
geltokitik
08:00etan

URTEEREA

Isla eta Lierganesera

Antolatzailea: **Demiku Jubilatuen Elkarte**



20 Zapatua
Areneko
kiroldegian

KIROLAK

ESKUBALDIA

Kadete neskek : Urdaibai Leioawagen-San Adrián
Jubenil neskek: Urdabai ET-Asevi Eharialde
Infantil neskek: Urdabai Kurtzio-Muskiz neskek 2011

20 Zapatua
Areneko
kiroldegian

KIROLAK

FUTBITOA

Bermeoko Ikaslegoiek-Biara B
Bermeo Biara A-Leioako B



Goiko Plazan
09:00-20:00



EKITALDIA

Bigarren eskuko merkatu txikia

Birziklatu, berrerabili, aldatu, oparitu... emon urteerea eta bizia sasoi baten erositako gauzei.

Antolatzailea: **Haitz Nagusidxe Alde Zaharreko Auzo Elkartea**



MUSIKA

Bermeoko Kantu Eguna, Nestor Basterretxearen omenez

Aurton 100 urte betetzen dira Nestor Basterretxea jaioko zela! Zorionak Jauna! Eskerrik asko zure ondare zoragarria gure artean uzteagatik! Kantuan ibiltzea zein gustukoa zenuen dakigulako, oraingoan zure oroimenez izango da gure kantu eguna!

Kantu jiran gabiltzan Urdaibaiko Taldeok, herrian elkartu eta egun pasa ederra ospatuko dugu; kaleak kantuz betetzeko asmoagaz gatzoz! Herriko Nestorren eskulturak bisitatu eta bertan zugaz batera Nestorren omenez abestu. Zure presentzia poztuko gaituzuelakoan gaude; denon artean gure herriko bazterrak euskal kantagintzaz betetzera goaz eta! Goizerdian hasi... bapo-bapo bazkaldu... eta arratsaldean kantuan jarraitu.

EGITARAUA

- 12:00etan:** Goiko plazan kantuzaleoi ongi etorria
- 13:00etan:** Talan, Barruetari eginiko eskulturaren lehen kantu zaparrada.
- 13:30etan:** Portuko Olatuan kantuan berri
- 14:00etan:** Erreten plazako pergola bilduman, kantuan jarraitu
- 14:30etan:** Lameran, Kosmogoinia serie gunean goizeko kantuen azken txanpa.
- 15:15etan:** Bazkaltzera Kasinora.
- 19:00etan:** Azken agurra Kasinoko plazan.
Erdi eta gozatu! Soberan dakizu ez zarela damutuko. Kantatzen duen herria bizirik dagoelako!!!

Antolatzailea: **Kanta kanta lorue**



21 **Domekea**
Santa Maria
eleizpean
11:30-13:30

DENDA SOLIDARIOA

KIDENDA

*Antolatzailea: **Kidenda***



25 **Eguena**
Arrantzaleen
museoan
18:00etan

BISITA GIDATUA

“Bermeo Erdi Aroan” erakusketara bisita gidatua

Erakusketearen komisarioek bisita gidatua egingo dabe, Bermeok Bizkaiko buru izan zan garai honetan eduki eban bilakaera historikoa azaltzeko.

Doako ekintzea. Aldez aurretik izena emon beharko da.
Leku mugatua.

Tel.: 946881171

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

www.bizkaikoa.bizkaia.eus



Arrantzaleen
museoan
19:00etan

BERMEO ERDI AROAN HITZALDI ZIKLOA

“Talako Andra Mari: desagertutako ikono baten historia” (gaztelaniaz).

Hizlariak: Jesus Muñiz eta Asier Romero. Bien artean, desagertutako Talako Andra Mari elizaz dagoen informazioa eskainiko dabe.

Doako ekintzea. Sarrera librea plaza guztiak bete arte.

Tel.: 946881171

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

www.bizkaikoa.bizkaia.eus

*Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa***

Erroxape
Emakumeen
Elkartearen
lokalean
19:00etan

FILM EMONALDIA

“Puñales por la espalda” filma

*Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen***
Elkartea



25 Eguena
Bermeoko
Kafe
Antzokian
20:00etan



ANTZERKIA

EUKALYPTUS - Jon Ander Urresti

SINOPSISIA

Hau ez da baso bat.
Hamen lurra karratua da.
Hamen ilarak osatzen doguz.
Hamen gatxa da gauzak sustraitik moztea.
Hamen, eta hor, eta han.
Hau monolaborantza da. Gure bizi-eredua, paisaian islatua.
Eukalyptus esatea etekin esatea da
Eukalyptus esatea errekin esatea da
Eukalyptus esatea berrekin esatea da.
Eukalyptus esatea gutaz aritzea da.
Eroan nazazu basora, eta esango deusut norena dan, eta zer
haziko dan gu falta garenean.
Eta zu, zerk sutzen zaitu?

FITXA ARTISTIKOA

Idea originala: Jon Ander Urresti.
Testuak: Nerea Ibarzabal, Jon Ander Urresti, Matxalen de Pedro eta Beñat Urrutia.
Zuzendaritza eta dramaturgia: Matxalen de Pedro eta Jon Ander Urresti.
Interpreteak: Jon Ander Urresti eta Beñat Urrutia.
Sarrerea: 8 € (6 € deskontudunak) Salgai apirilaren 15etik aurrera, Gizarte eta Kultura etxean eta www.giglon.com webgunean.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

26 Barikua
Gizarte eta
Kultura Etxeko
sotoan
18:00etan

EKITALDIA

TUTE TXAPELKETEA

Antolatzailea: **Demiku Jubilatuen Elkarte**



26 **Barikua**
Gaztelekuan
(Gizarte eta
Kultura Etxea)
18:00-20:00

TAILERRA
"MENOPAUSIATIK
PLENOPAUSIARA"

Tailerrak, guztira, 3 saio izango dauz. Beste bi saioak maitatzean izango dira 3 eta 10ean. Plenopausia garaia ezagutu eta ulertu, fisiologia sexuala ulertu eta gorputz aldaketan aurrean begirada malgua sortu eta norbanakoaren sexualidadearen gaineko errespetuzko jarrerak eskuratzeko aukera, besteak beste, izango dabe emakumeek. Gorputza da bidea elkarreak emango dauz tailerrak.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



27 **Zapatua**
Areneko
kiroldegian

KIROLAK
ESKUBALOA

Infantil neskek: Urdabai Demiku – Kukullaga Etxebarri 2011

FUTBITOA

Bermeo Biara B- Zorrotzako Tecnocasa

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

Bakarkako finala b2

28 **Domekea**
Torrontero
enparantzan
12:00-12:30

EKITALDIA

Dantzaren Nazinoarteko
Egunaren ospakizuna

Antolatzailea: **Divenire Dantza Eskola**

Areneko
kiroldegian

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

Txikigym goizez



30 **Martitzena**
Sancti Spiritus
zaharren egoitzan
17:30ean

KONTZERTUA

"FLAUTA DOINUAK" zaharren egoitzan

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Gizarte eta
Kultura Etxeko
sotoan
18:30ean

EKITALDIA

URTEKO ASANBLADA OROKORRA

Antolatzailea: **Demiku Jubilatuen Elkarte**

Kultur Zerbitzuak

Bekoportale

0-5 urte bitarteko umeentzat

Kardenal Mendoza aldatzean

Ordutegi aldaketa:

Astelehenerik eguenera: 17:00-19:00

Barikuetan: 17:00-20:00

ASTE SANTUKO PROGRAMAZINOIA:

Apirilaren 2an: Untxiak eskulana

Apirilaren 3an: Ipuin kontaketa

Apirilaren 4an: Jolas kooperatiboak

Apirilaren 5ean: Herbario txikia

Apirilaren 6an: Itxita

Apirilaren 8, 10, 15, 17, 22, 24 eta 29an: Psikomotrizidatea

Apirilaren 9, 16, 23 eta 30ean: Jolas librea

Apirilaren 11n: Intsektuak

Apirilaren 12an: Herbarioa

Apirilaren 18an: Itzalak

Apirilaren 19an: Musika jarduera berezia Bermeoko

Musika Eskolarekin

Apirilaren 25ean: Ipuinaren ordua

Apirilaren 26an: Kartoizko animaliak



Ume txikien txokoa

Gizarte eta Kultura Etxean

Astelehenerik eguenera, 16:30etik 19:30era

*Umeek arduradun batez egon behar dabe, derrigor.

BERTON ALKARTEAREN GINKANA JOKOA

Berton Alkarteak, TopaBermeo alkartearen laguntzagaz, ginkana jokoa antolatu dau.

Data: apirilaren 7ra arte.

Aurtengoa 3. edizioa da eta 53 denda parte-hartzaile dagoz.

Helburua Bermeoko bizilagunen eta herriko denda eta negozioen arteko alkarreragina sustatzea da.

Bermeoko denda eta/edo negozioetatik ibilbide bat egitea da asmoa, baita herri barruko hainbat puntu interesgarritatik be.

Jokoaren mapa eskuratu behar da parte hartzen dauan edozein dendatan eta bertan agertzen diran pausoakaz jolasten hasi:

- Denda eta/edo negozio horretan irudi adierazgarri bat ipiniko dogu, bardina danetan, eta herritarrek irudi hori topatu behar dabe.
- Bestalde, interesguneetan proba txiki bat egin behar dabe.

Saria: parte-hartzaileen artean zozketa bat egingo da. 100 euroko bono bi, eta otzara bat sariakaz.



Ludotekea

6-11 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat

ASTE SANTUAN ZABALIK (Apirilak 2, 3, 4, 5 eta 6a, 17:30-20:30)

Apirilaren 2an: Merendola.

Apirilaren 3an: Dantza.

Apirilaren 4an: Yoga eta erlaxazioa.

Apirilaren 5an: Urteerea Forura.

Apirilaren 6an: Eskulanak.

Barikuetan 17:30-20:30 eta zapatuetan 17:00-20:00

Gizarte eta Kultura Etxean

Apirilaren 12-13an: Zapatuan zinemara eta jokoak.

Apirilaren 19-20an: hauteskundeak dirala eta, Ludoteka itxita egongo da eta ekintzak kanpoan egingo dira. Barikuan Talara urteerea eta zapatuan Almikara urteerea.

Apirilaren 26-27an: barikuan jokoak eta zapatuan Arrantzaleen Museora.

*Informazio gehiago Udalaren "Bermeo zabaltzen" APPean, webgunean eta generako sare sozialetan.

KZ GUNEA

AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Apirilaren 8tik 10era: 11:00-13:00.
"Canva. Ikasi diseinatzen"
(euskeraz). 6 ordu.

Apirilaren 11tik 12ra: 11:00-13:00.
"Editar videos con tu
smartphone" (gaztelaniaz).
4 ordu.

IT TXARTELA ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Apirilaren 8an: 14:00-16:00
eta 16:00-18:00

Apirilaren 11n: 09:00-11:00

Apirilaren 15ean: 11:00-13:00

Zubiaur tar Kepa 26-28

1. solairuan (udal-azokan)

Tel.: 944033325

www.kzgunea.eu

tutor.bermeo@kzgunea.net

ZINEA

NESTOR BASTERRETXEA
ARETOAN

Sarrereren prezioa:

Zapatu eta domeketan: 5,20 €

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 4,50 €

Umeentzako saioak: 4,20 €

Ordutegia:

NAGUSIEN FILMAK

Zapatu eta domeketan: 19:30ean.

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 19:00etan
eta 21:30ean

UMEEN FILMAK

Zapatu eta domeketan: 17:00etan

*Oharra: ordutegiak aldatu ahal izango dira,
filmak luzeak diranean.

Astero filmen informazioa udalaren
webgunean, Bermeo zabaltzen APPEan
eta sare sozialetan zabalduko da. Sarrerak:
salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

NAGUSIENTZAKO SAIOA

- La familia Benetón
- Cazafantasmas: imperio helado
- Matusalén
- Menudas piezas
- Civil War

UMEENTZAKO SAIOAK

- Kung Fu Panda 4
- Johnny Puff: Mision secreta
- Emma y el jaguar negro
- Dragonkeeper (euskeraz)



GAZTE JARDUERAK

QR-AREN BITARTEZ
APUNTATU ZAITEZ!

PLAZA MUGATUAK!

DOHANIK!

APIRILA

APIRILAK 3-4-5

ROBOTIKA TAILERRA

10:00 - 13:00
GAZTELEKUAN

IZENA EMATEKO EPEA:
MARTXOAK 18

12 - 18 URTE




APIRILAK 13

ARGI ERRONKA

18:00 - 20:00
GAZTELEKUAN

IZENA EMATEKO EPEA:
APIRILAK 10

12 - 18 URTE



APIRILAK 20

ZERAMIKA TAILERRA

18:00 - 20:00
KULTUR ETXEAN

IZENA EMATEKO EPEA:
APIRILAK 17

12 - 18 URTE



APIRILAK 27

ERREALITATE BIRTUALA

17:00 - 20:00
GAZTELEKUAN

IZENA EMATEKO EPEA:
APIRILAK 24

12 - 18 URTE



BERMEOKO
UDALA

688 819 950 / GIZ BERMEO

ERAKUSKETAK

Arrantzaleen Museoa

2023.12.14-2024.06.16

“Bermeo Erdi Aroan”

Museoko ordutegia:

Martitzenetik zapatara: 10:00 – 16:00

Domeka eta jaiegunetan: 10:30 – 14:30

Astelehenak itxita.

Lehen aldiz, hiribilduagaz zerikusia daukien pergamino formatodun dokumentu nagusi batzuk aurkezten dira Bermeon, eta, holan, herritarrak iraganeko ondare-iturri garrantzitsu horren partaide egiten dira. Ganera, paneletako testuen eta ilustrazioen bidez, gure tokiko historian gitxi aztertu dan aldi horretan Bermeok izan eban bilakaera historikoa ikusi ahal izango da. Lan honen guztiaren atzean, Bitor Uriarte, Asier Romero eta Rober Garay egon dira.

Tel. 946881171/ helbide elektronikoa: arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus / www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Antolatzailea: Arrantzaleen Museoa

Berhaz Bulegoan

BERHAZ BULEGOKO XL. ERAKUSKETEAK

Pilar Corrales “IRUDI GERUZAK”

Argazkigintza eta fotokonposizioa, teknika analogiko digitalak.

Pilarcorrales.raw@gmail.com



Demiku Jubilatuen Alkartea

BINGOA: astelehenetan eta eguaztenetan 19:00etan
Demiku Nagusien Txokoa

BERBALAGUN: eguenetan 19:00etan
Demiku Nagusien Txokoa



Antzerki tailerra

Apirilaren 4, 11, 18 eta 25ean, 19:00-21:00

Irakaslea: Eneritz Artetxe

Antolatzailea: Bermeoko Udala

AZOKAKO POSTUAK EMAKIDAN HARTZEKO AUKERA

LIBRE DAUDEN POSTUAK:

1. MODULUA

- 1. postua.
- 2. postua.
- 3. postua.
- 4. postua.
- 5. postua.
- 8. postua.
- 9. postua.
- 10. postua.
- 24. postua.
- 25. postua.
- 31. postua.
- 32. postua.

2. MODULUA

- 33. postua.
- 34. postua.
- 35. postua.
- 36. postua.
- 38. postua.
- 39. postua.

ORDAINDU BEHARREKO KANONA:

- **1. moduluko postuak: 135,47 euro/hileko.**
- **2. moduluko postuak: 120,11 euro/hileko.**

Eskariak egiteko epea, 2024ko abenduaren 1era arte.

Aurkeztu beharrekoak:

- Dagokion postua nork beretzat erabiltzeko eskabidea, lanpostu zenbakia eta egin beharreko jarduera zehaztuta. Eskabidean kontratuaren oinarri den eta osorik onartzen duen plegu hau ezagutzen duela adieraziko da.
- Nortasun juridikoa eta legez jarduteko gaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea.
- Erantzukizuneko aitortpena, Sektore Publiko Kontratuen Legearen 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetan ez dagoela dioena.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituela egiaztatzen duen agiria aurkeztea.
- Behin betiko bermea jarri izanaren egiaztatzea.
- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza.
- Postua elikagaiak saltzeko baldin bada, lanpostuaren titularraren janari-erabiltzailearen txartelaren kopia, pertsona fisikoa denean; edo lanpostuari atxikitako langileena, pertsona juridikoen kasuan.



HERRITARRENTZAKO OHARRA!

HAUTESLEKU ALDAKETA

Eusko Legebiltzarrerako
hauteskundeak: apirilaren 21ean.

Benito Barrueta Institutuan ez da hauteskunde mahairik egongo. Benito Barrueta Insitutuan botoa emoten ebenek, Ataldeko eskoletan emongo dabe.

Maiatzean...

- Nestor Basterretxearen jaiotzaren 100. urteurrena
- Arrain Azoka
- Haur olinpiadak
- Udaberri Kulturala
- Zinegoak
- Warhammer 40.000 V. Lehiaketa



Jarri hemen zure publizitatea

Prezioa: 250 €

946 179 157

kultura@bermeo.eus

www.bermeo.eus

